



Gurasotasun berriak testuinguru aldakorretan

IKERKETA PROIEKTUA

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

**NAFARROAKO
UNIBERTSITATE PUBLIKOA**

Gizarte Laneko saila
Arrosadiko campusa
31006 Iruñea (Spain)

HARREMANETARAKO

Paloma Fernández-Rasines
Tel 00 34 948169691
Email: paloma.fernandez@unavarra.es

PROIEKTU
HAU DIRUZ
LAGUNDU
DUTE:



Gurasotasun berriak testuinguru aldakorretan



Aldaketa sozialek eta legegintza-ekimen batzuek zaintza partekatuari eta guraso-erantzukidetasunari buruzko eztabaida piztu dute. Familiari eta gurasotasunari buruzko gogoeta zabalago batean kokatzea da gure asmoa.

Gaiarekin lotuta egoteaz gain, gaia koordinatu egokietan kokatzen laguntzen dute hainbat kontzeptuk, hala nola ohiko rolak eta ereduak, genero-harremanak eta familia eta lana bateragarri egitea.

Ahaidetasunaren birdefinizioak, ezkontzaren krisiak erakunde gisa, dibortzio prozesuen ondoren berriz eratutako familien errealitateak, barneko eta nazioarteko adopzioak, nazioz haraindiko familiek, guraso bakarreko familiek, familia homoparentalek eta laguntzaren bidezko ugalketak elementuak ematen dituzte zein esparrutan ari garen ulertzeko eta amatasunaren eta aitatasunaren edozein jarduera arduratsutan baliabide gisa integratzeko.

Guraso figura berriak sortzen ari dira, eskaera eta galdera berriak egin eta aldaketak proposatzen dituztenak errealitate pertsonaletan eta politika publikoetan eta esku-hartze sozialean, arautik urrun dauden esperientziak, estigmatizatuak hainbat kasutan eta arazo-iturritzat hartzen direnak, baina erantzukidetasuneko praktika onak ematen dituzte.

Orrialdearen sorburu den ikerketa

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren 2011rako I+G+b Programaren esparruan Jerónimo de Ayanz programaren bidez finantzatutako ikerketa gaitasuna nazioartekotzeko jarduera bat da Orrialde honen sorburua.

Jardueraren bidez loturak egin nahi dira honako gai hauek aztertzeko: gurasotasuna migrazio-egoeretan, adingabeen joan-etorria eta gurasotasun erantzukidearekin lotutako guraso-eginkizunak. Honako hauek osatzen dute sarea: [Mónica Tarducci](#), Buenos Airesko Unibertsitatekoa, [Gioconda Herrera](#) eta [Patricia Ramos](#), Quitoko Gizarte Zientzien Fakultate Latinoamerikarrekoak, [Jose Ignacio Pichardo](#), Madrilgo Unibertsitate Konplutentsekoa, [Paloma Fernández-Rasines](#) eta [Mercedes Bogino Larrambeberre](#), Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Sailekoak.

Gizarteari jakintza itzultzea

Orrialde hau izan da aukeratu den modua hartutako ezagutza gizarteari itzultzeko, eta, halaber, irakaskuntza-esparruan sortutako gogoetaren berri emateko, berak ahalbidetu baitu, gizarte eta kultura praktiken esparruan eta politika publikoen esparruan kokatzeko eta akademiatik iritziak eman eta azterketak egiteko.

Bloke bakoitzean auziaren egoeraren laburpen bat egiten da, informazio gehiago eskuratzen laguntzen duten bibliografia-erreferentziak eta estekak ematen dira, eta lan iradokizun txiki bat egiten da.

Gai honetan interesa duten pertsonak, kolektiboak eta profesionalak hobetzeko iradokizunak eta iruzkinak bidaltzera animatzen ditugu. Harremanetarako: paloma.fernandez@unavarra.es

Esparru teorikoa

Genero berdintasuna

Desberdintasun biologikoetan oinarritutako eraikuntza sozial gisa definitu da generoa. Beren sexu-ezaugarrien arabera, pertsonak sailkatu egiten dira, eta aukerak, jokabide-ereduak, eginkizunak eta arauak esleitzen zaizkie. Bestalde, badaude azterketak generoak sexu desberdintasuna sortzen duela diotenak. Gizonak eta emakumeak dira antolatu dugun gizarte-egituraren euskarria, eta antolaketa honek sexismoaren beharra dauka.



Familiak, eskolak, inguruneak eta hedabideek gizarteratze-prozesu honetan parte hartzen dute, eta prozesu horrek balioak, arauak, ohiturak, estereotipoak eta rolak ematen ditu.

Errealitateak desberdintasun hori jaso, erakutsi eta finkatzen du, eta desberdintasun horrek eragina du hezkuntza, gizarte, psikologia, ekonomia, lan eta politika arloetan eta sexismo bihurtzen du. Gizonak eta emakumeak maila sozial desberdinetan gaude. Laburbilduz, esan dezagun pertsona bakoitzak ezin hobeki dakiela zer den gizona izatea eta zer den emakumea izatea, eta zein jokabidek egonkortzen edo auzitan jartzen duten horren inguruko gizarte-adostasuna.

Genero bakoitzari esleitutako rolek eta estereotipoek errealitatearen irakurketa lau bat proposatzen dute, gizona edo emakumea izateko era zuzen bakarria balego bezala, eta pertsona izateko bi era zuzen bakarrik, eta horregatik zama eta kostu bat daramatzate, bizi-aukerak mugatzen baitituzte.

Horretan giltzarri da lanaren sexu-banaketa: batetik, ohikoa izan da, are gaur egun ere, gizonen esku uztea lan produktiboa, dirua etxera eramatea; eta bestetik emakumeak, lan merkatuan lan egiteaz gain, ugalketa eta zaintza lanaz arduratu izan dira. Hain zuzen, lanaldi partziala duten langile gehienak emakumeak dira. Halaber, harremanekiko jarrera ere aurreikusita dago: gizonak aktiboak izan behar dute eta emakumeek mendekoak.

Berdintasunaren fikzioa

Egia da gai hauek kalean daudela eta horiei buruz hitz egiten dela eta denok hobera egin dugula, baina urrun gaude egiazko berdintasunetik. Egindako aurrerapenen aurrean, berdintasunaren fikzioa delakoak dena eginda dagoela pentsarazten digu eta, auzitan jartzen ez dugunez, sistema sendotzen dugu, bere kostu pertsonal eta sozial handiak gorabehera.

LAN PROPOSAMENA:

Pentsatu haurra zineneko garaietan eta egungoetan. Zein jokabide debekatzen zizkizuten edo ez ziren egokiak familian, eskolan eta lagunartean, mutila edo neska zinelako? Eta orain gizona edo emakumea izategatik?

Familia, ahaidetasuna eta gurasotasunak

Ahaidetasunaren antropologia familiaren azterketaz arduratzen da. Haren barruan, sorraraztearen antropologiak gai hauek aztertzen ditu: giza taldeen ugalketari buruzko gizarte- eta kultura-agerpenak, haurren haziera eta atxikipena, beren zaintza, beren gizarteratzearen eta enkulturazioaren ardura ematea beren helduaro sozialera arte eta prozesu horien bidez bizitzan garatzen diren harremanak. (González et al., 2010 a.p. 102)



Azterketa batzuek nabarmentzen dute odolkidetasuna ez dela gehiago ahaidetasuna sortzen duen faktore bakarra, eta mendebaldeko ahaidetasun garaikideak aukeratutako harremanen bidez sortutako loturen aldeko apustua egiten du. Adopzioak, ugalketa lagunduak eta gurasotasun homosexualak ahaidetasunaren eredu biogenetikoa zabaltzen dute.

Familiaren birdefinizioa

Familia ahaidetasun harremanen bidez lotutako pertsona talde bat da, odolkidetasun harremanak izan edo ezkontza-ahaidetasunekoak izan. Pertsona horiek elkarrekin bizi dira edo ez, baina nortasun moral eta sinboliko bat partekatzen dute, beren burua familia gisa ikusarazten diena edo besteen begien aurrean familia gisa agertzen dituenak. Honenbestez, ahaidetasunaren etika zaintzaren etika gisa definitzen da, gizakiak zaindu behar dituztenen eta zaintzen dituztenen inguruan antolatzen baita. Berrito eraturako familiak, homoparentalak, guraso bakarreko familiak, seme-alabatasun borondatezkoen eta biologikoen protagonistak dira eragile berriak aldaketa-egoera batean. Bikote harremanek gizarte harremanak antolatzen dituen gunea izaten jarraitzen dute, baina ezkontzak erakunde gisa nagusitasuna galdu du gizarte teknologizatuetan.

LAN PROPOSAMENA:

Familia-zuhaitza.

Hiru edo lau belaunaldi atzera egiten badugu denboran, gure familia zuhaitzak ikuspegi dinamiko bat eskainiko digu, familien bilakaeraren lagin grafiko bat.

Ezkontza eta dibortzioa

Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 2011n 110.651 ezkontza desegin ziren, eta horietatik % 93,6 dibortzioak izan ziren. 2010eko datuekin alderatuz goranzko joera ez oso nabarmen bat nagusi bada ere, ez da iristen 2006ko zifretara. Urte hartan 145.919 ezkontza desegin ziren.



Egungo krisiaren eraginez bikote askok bi aldiz pentsatzen dute ziurgabetasun ekonomikoaren aurrean.


Banantze eta dibortzioen kopuru handiena, bai gizonengan eta bai emakumeengan ere, 40 urtetik 49 urtera bitarteko adin-tartean dago. Ezkontza desegitean emakumeen batez besteko adina 42,3 urte zen eta gizonena, 44,9 urte.

Desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 15,7 urte zen. 10 dibortziotatik hiru ezkontuta 20 urte igaro eta gero gertatu ziren, eta 10 dibortziotatik bi sei eta hamar urte arte iraun zuten ezkontzetan.

Desegindako ezkontzen % 42k ez zuten seme-alabarik, % 48,4k adingabeko haurrak zituzten bakarrik, % 3,9k ekonomikoki mendekoak ziren seme-alaba adinez nagusiak, eta % 4,9k bi egoeretan zeuden seme-alabak.

Hausturen % 57,2tan elikagaietarako pentsio bat eman zen. Hausturen % 85,9tan, aitari egokitu zitzaion ordaintzea, hausturen % 5,1etan amari eta hausturen % 9,0tan bi ezkontide ohiei. Hausturen % 12tan pentsio konpentsatzaile bat egon zen, eta 10 kasutatik 9tan senarrak ordaindu zuten.

Adingabeen zaintzari dagokionez, kasuen % 81,7tan amari eman zitzaion, % 5,3tan aitari, % 12,3tan partekatua izan zen eta kasuen % 0,7tan beste familia edo erakunde batzuei eman zitzaion.



Iturria: ESTADÍSTIKAKO INSTITUTO NAZIONALA 2012

LAN PROPOSAMENA:

Estatistikako Institutu Nazionalaren *Mujeres y hombres en España* argitalpenean esaten denaren arabera, emakumeen % 38,2k ez dute lan egin urte batetik gorako denbora tartean haurra jaio ondoren. Gizonen kasuan, aldiz, % 7,4k. Dibortzio ondoko jagoletzari buruzko lehenagoko datuekin lot dezakezu datu hau?

Documentos TVren *Las caras de la maternidad*, erreportajeak gogoeta interesgarri bat eskaintzen du (<http://www.rtve.es/noticias/documentos-tv/reportajes/caras-maternidad>).

Zaintza partekatua

Estatuaren esparrua

Espainiako zuzenbidean lau babespe mota daude:

1. Guraso batek bakarrik izango du babespea eta beste gurasoak egonaldi eta komunikazio erregimen bat izango du.
2. Seme-alaben babespe banatua. Guraso bakoitzak seme-alabetako batzuen babespea bere gain hartzen du.
3. Hirugarren bati, familiako kide bati, tutoreari edo erakundeari emandako babespea.
4. Elkarren segidako baterako babespea edo babespe partekatua. Hainbat modalitate ditu:
 - Aldibereko babespe partekatua: familiako kide guztiek etxe berean bizitzen jarraitzen dute.
 - Denbora partzialeko babespea adingabeen bizilekua aldatu gabe: Gurasoak familiaren etxetik sartu eta irteten dira.
 - Denbora partzialeko babespe partekatua bizileku aldaketarekin: Adingabeak bi gurasoen etxeetan bizi dira txandaka.

Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministroak bultzatu duen erreformaren aurrean, zaintza partekatua lehenesteko, hainbat elkartek eta taldek, batez ere gurasoenak, zaintza partekatuaren aldeko apustua egin dute. Aldiz, beste foro batzuen iritzia da zaintza partekatua emateko ezinbestekoa dela gurasoek aurretiaz harreman ona izatea eta haustura gatazkarik gabe egitea, eta pentsatzen dute adingabearen interesak banan-banako konponbide bat eskatzen duela eta urratu egiten dela legez sistema bat lehenesten bada. Halaber aipatzen da ez daudela eztabaidatik at elikagaien pentsioei, familiaren zamei eta etxebizitzaren erabilerari buruzko interesak.

Nafarroa

Gurasoen bizikidetzaren hausturaren aurrean familia harremanetako berdintasunari buruzko 2010eko maiatzaren 26ko 3/2011 FORU LEGEAK berrietasun bat dakar aurreko legeriarekin alderatuta: epaileak babespe eta zaintza partekatua edo banakako zaintza ezartzeko aukera izango du are dibortzio-eskaera gurasoetako batek bakarrik eskatzen duenean eta ministerio fiskalak eskatu gabe.

Beste autonomia erkidego batzuk

Beste erkidego batzuek beren legeria erreformatu dute. Esaterako, Aragoi, Valentzia eta Katalunia. Aragoi izan da zaintza partekatua arautu duen lehen erkidegoa, eta zaintza partekatua bertan bakarrik aplikatzen da lehentasunez *Gurasoen bizikidetzaren hausturaren aurrean familia harremanetako berdintasunari buruzko 2010eko maiatzaren 26ko 3/2011 FORU LEGEAREN* bidez. Bi urte geroago, Aragoiko Gobernuaren informazioaren arabera, zaintza partekatua ezartzen duten sententziak % 50 inguru dira.

Beste herrialde batzuk

Egun zaintza partekatua lehenengo aukera da Belgikan eta Italian. Alemanian, Norvegian eta Portugalen gurasoen adostasuna dagoenean bakarrik ematen da. Ezarri daitezkeen aukeretako bat da Frantzia, Ingalaterra, Txekiar Errepublikan, Danimarkan, Finlandian, Herbeheretan eta Suedian. Norvegian, aitatasun baimenei dagokienez berdintasunezko guraso banaketako politiketan aitzindaria den eta emakumeen jarduera tasa ia gizonen jardueraren tasaren pare dagoen herrialdean, zaintza partekatua gutxienez aukera da. Litekeena da honako hau izatea arrazoia: bikote gehienetan gizonak arduraldi handiagoa dute jarduera ordainduetan, eta horrek oztopatu egiten ditu gurasokidetasun proiektuak.

LAN PROPOSAMENA:

Taldea, aurkitu gure herrialdeko ordenamendu juridikoan ezarritako aukera bakoitzaren aldeko eta aurkako argudioak. Saiatu adosten erregimen ideala eta hori burutzeko beharrezkoak diren baldintzak.

Gurasokidetasun planifikatua

Zaintzari eta babespeari buruz
Aragoin, Valentzian,
Katalunian eta Nafarroan
berriki egin diren legeek
gurasotasun plana sartzen
dute tresna gisa. Gurasoen
arteko akordio-esparru bat.
Hausturaren ondoko
gurasokidetasuna ezartzen
duen akordio-esparru bat.



Interesgarria da egiaztatzea nola definitzen diren, epaitegiek eskatuta, gurasokidetasun arduratsuaren baldintzak eta eginkizunak, errealitatean eta bikote harremanetan bikote bakoitzaren iritzira uzten den zerbait.

Gizon eta emakumeek guraso-erantzukizunak erdibana partekatzen dituztela ezartzen du Justizia Ministerioak zaintzaren eta babespearen erreformari buruz egindako komunikazioak. Nolanahi ere, jarduera ekonomikoaren adierazleek eta denboraren erabilerek generoaren arabera, bai eta familia eta lana bateragarri egiteko politiken eraginaren ebaluazioak ere, erakusten dute EBk gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan emandako ildo estrategikoez ezarritako helburuetatik asko urruntzen dela. Horrek esan nahi du gurasotasuna oso gutxi planifikatutako gai bat dela genero berdintasuneko irizpideei erreparatuz eta, neurri handi batean, ohiko ereduak eta asimetrikoak aplikatzen direla.

Gurasotasun planak

Bizikidetzaren garapenean, haustura gertatu eta gero saihestu ezin daitezkeen desberdintasunak sortzen ditu zeregin eta ardura banaketak. Ikuspegi honetatik, bistan da gurasotasunari dagozkion zereginak bete baino lehen gurasotasun planak egitea beharrezkoa dela, eta plan horiek gurasotasunak gurasoen bizitzan dituen gizarte, lan eta ekonomia arloko ondorioak aurreikusi behar dituzte.

LAN PROPOSAMENA:

Egin ezazu zure aitatasun/amatasun plan ideala.

Norekin edukiko zenituzke seme-alabak? Bakarrik eduki nahi dituzu?

Zenbat seme-alaba edukiko zenituzke? Zein litzateke une egokia? Zenbat urterekin gutxi gorabehera?

Nola banatuko zenituzke baimenak, zainketak, erantzukizuna eta eskainitako denbora beste aita edo amarekin?


Nola egin beharko lirateke bateragarri guraso bakoitzaren lana eta bitzita pertsonala?

Haustura gertatuko balitz, nola uste duzu antolatutako beharko litzatekeela jagoletza?

Praktika onak

Migrazio-ibilbideak

Migrazio mugimenduek generoaren egitura, funtzionamendua eta ohiko rolak aldatzen dituzte eta familietan hainbat barne gogoeta egiteko beharra sortzen dute. Horrez gainera, familiei informazioa eta irizpideak ematen dizkiete kanpoko hainbat erakundeek: gobernu- eta erlijio-erakundeek, GKEek eta gizarte hedabideek.



Familia ez perfektuak balira bezala erakutsi izan dituzte hedabideek "nazioz haraindiko familiak". Haatik, protagonistek beren esperientziari buruzko ikuspegi positiboa dute. Kanpoko ikuspegi hau okerragoa da amatasunarentzat aitatasunarentzat baino. Batzuek zein besteek dituzten autopertzepzioak ere desberdinak dira. Oro har, gizonek aita hobeak izateko asmoa dute nazioz haraindiko hazieraren esperientzian. 2004an, New Yorkeko estatuan bizi ziren Ekuadorko hego mendilerroko gizon emigratzaileei egindako elkarrizketa batean, gizon horiek esaten zuten beren seme-alabekiko harreman-estrategiak aldatu zituztela emigrazioagatik. Kasu askotan, emigratu baino lehen, harremana hotza edo diziplinan oinarritutakoa zen. Nolanahi ere, urrun egoteak komunikazio teknologizatuaren bidez arreta zuzenago eta jarraituago batean oinarritutako nazioz haraindiko harreman bat ahalbidetu zuen.

80ko hamarkadan AEBentzat langile gizonezkoen hornitzaile izatetik Europar zaintzarako langile emakumezkoen hornitzaile nagusi izatera pasa zen Ekuador 90eko hamarkadaren erdialdean, familia emigratzaileei buruzko diskurtso publikoak bilakaera bat izan du, eta ikuspegi katastrofista batetik, familiak desegitearekin parekatzen baitzuen migrazioa, familia horiek esku-hartzearen xede huts gisa ikustera pasatu da. Oso gutxitan hartzen dira zainketaren antolaketa sozial eta orokorraren subjektu higiarazletzat. Halaber, hazieraren eta zaintzaren erantzulea, bermea eta betearazlea den ama tradizionalaren irudiak, familiari eta nazioari buruzko ideietan hain errotua dagoenak, bidezko esperientziaz hitz egitea galarazten du nazioz haraindiko amatasunaren esperientziaz ari garela.

LAN PROPOSAMENA: **Begiratu zure inguruan.**

Ezagutzen duzu nazioz haraindiko familiaren bateko kideren bat zure inguruan? Aita ala ama ezagutzen duzu? Badakizu zer pertzepzio duen bere esperientziari buruz? Badakizu nola eusten dien jatorriko herrialdean geratu den familiarekiko loturei?

Berriro eratutako familiak

RAEn familia hitzari buruz dagoen lehenengo adiera ez da aski egungo familiak definitzeko: "Ahaideak diren eta elkarrekin bizi diren pertsona-talde bat".



Etxea eta familia, ezkontza harremana eta seme/alaba harremana kontzeptuak bereizten ari dira. Ezkontza bikotea, guraso bikotea eta ugalketa bikotea ez dira nahitaez bikote bera. Era askotako ezkontza ezkontzek eta gurasotasunek familiaren definizio berri bat ekarri dute: "gurasoen ezkontza-historian eratutako sare soziala".

Berriro eratutako familiak sistema etxeaniztunak dira. Seme-alaben, gurasoen eta guraso-irudi berrien joan-etorria dute ezaugarri, eta denbora, espazioa eta "etxean bezala egotea"/ "*feeling like home*" bezalako dimentsio garrantzitsuetan mugitzen dira.

Bikote berriek familian betetzen duten lekuaren arabera, berriro eratutako familietan lau logika edo eredu bereizten dira:

Ordezkapen logika: zaintza duen gurasoaren bikotea azken honen seme-alabekin bizi da eta beste gurasoaren lekua betetzen du. Modalitate hau familiaren irudi tradizional batean oinarritzen da: familia ez da auzitan jartzen, baztertutako gurasoaren irudia baizik.

Betierekotasunaren logika: bikotekide ohien eta bikotekide berrien arteko etengabeko negoziazioa da, eta ezkontza lotura hautsi dela ulertzen da, baina ez seme/alaba lotura. Bikotekide berriak "babesle adiskidetsu" gisa jokatzeko, adiskidetasunaren eta ahaidetasunaren artean dagoen harreman bat.

Status quoaren logika: bikotekide berriak ez du bere gain hartzen gurasotasunen berriari buruzko eginkizun aipagarririk.

Bazterketaren logika: familia berriro osatzeko proiektuak beren iritzia ez duela aintzat hartu eta integratuta sentitzen ez diren adingabeen edo gazteen esperientziak azaltzen ditu.

Esperientziak erakusten digu errealitatea askotarikoa dela eta amaorde/aitaorde hitzek ez dituztela errealitatearen aberastasuna eta ñabardurak erakusten. Halaber, anaiorde edo arreba/ahizpa erdi, anaia hamabost egunetik behin eta beste hitz batzuek ez dituzte harreman berri hauen aurpegi mugagabeak adierazten.

LAN PROPOSAMENA:

Ezagutzen duzu *Modern family* telesaila? Bere kapituluetako bat ikustea ariketa ona da.

Homoparentalitatea

Familia guztiek ez dituzte guraso heterosexualak. Beste kasu batzuetan, gurasoak lesbianak, gay-ak, bisexualak edo transexualak dira (LGBTIQ familiak).



Pertsona horiek era askotan bihurtzen dira ama eta aita: aitasun biogenetikoa, emaile ezagun edo ezezagun baten intseminazioa, ordezko haurdunaldia, adopzioa eta harrera. Aukera horiek bakarka edo bikotean egiten dira.

Nolanahi ere, seme-alabak izateko prozesua sarri planifikatuagoa dute pertsona heterosexualek antzeko prozesu batean baino. Bestalde, sozialki estigmatizatutako prozesuak dira oraindik ere, homosexualitatearekin eta hedaduraz arauzkoa ez den edozein sexu-aukerarekin sentimendu negatiboa dagoelako. Hain zuzen, adopzio-araudiek oro har nahiago dituzte guraso heterosexualak guraso homosexualak baino.

Familia homoparentalek gainerako familien prozesuak partekatzen dituzte, hautsi eta berriro eratzen dira, eta honenbestez hainbat familian gurasoetako batek lehenago zuen bikote heterosexual bateko seme-alabak daude. Litekeena da azken familia mota hau izatea une hauetan ikuspegi sozialetik eta akademikotik aitorten txikiena duen berriro eratutako edo osatutako familia modalitatea, agian zaila egiten delako ulertzea sexu-orientazioa prozesu dinamikoa dela eta aldatu egin daitekeela pertsonen bizitzan zehar.

Oso hedatua dago familia homoparentaletako seme-alabei buruzko kezka, ingurunearekin duten harremanari, beren sexu-orientazioari eta oro har beren garapenari buruzko kezka. Ildo honetan, bai gure herrialdean, bai beste herrialde batzuetan egindako azterketek erakusten dute ez daudela desberdintasun handiak beren garapen pertsonal eta sozialean familia heteroparentaletan hazitako semea-alabekin alderatuz.

LAN PROPOSAMENA: Begiratu zure inguruan.

Film hau ikusiko da:
The kids are all right
(Haurrak ongi daude)
(2010). Filmak taldean zine-forum interesgarri bat egiteko aukera ematen du, *Mis padres son gays* dokumentalak bezala.

(<http://www.youtube.com/watch?v=pw0yz4AjQbc>).

Adopzio eta harrera prozesuak

Nazioarteko adopzioen edo herrialde baten barneko adopzioen bidez haurren zaintzari eta gizarteratzeari buruzko erantzukizuna bestetaratzen da. Adingabeak semetasun/alabatasun biologikoko lerroetatik harago doazelako ustea dago bere oinarrian.



Halaber, administrazio arduradun bakoitzaren adopziorako betekizunek argi erakusten dute zein den oinarrizkotzat hartzen diren guraso eskumenen eta guraso-irudi idealen gizarte-ezaugarrien katalogoa. Horrek norgehiagoka sortzen du aita edo ama ona izatea zer den definitzen duten teknikarien eta teknikarien ezagutzaren eta eskatzaileen jakinduria ez-aditu eta intuitiboaren artean, zeinek makurtu egin behar baitute amatasun eta aitatasun biologikoak eskatzen ez duen azterketa bat egitera.

Argentinako barne-adopzioei buruzko azterketa batek baieztatzen du gurasotasun aukera hau gero eta hedatuagoa dagoela bikote gazte heterosexualetan, eta adoptatutako adingabeek gizarte mailan gora egiten dute sarri, landatik hirira, baliabiderik gabeko familietatik baliabideak dituzten familietara edo probintzia batzuetatik beste batzuetara. (Tarducci 2011).

Ama adoptatzaile batek honela zioen: "Adoptatzeko asmoa bagenuen, nik lasai eduki nahi nuen haur bat, eta, egia esan, sabela inoiz ez zait axola izan". Ildo honetan, adopzioko guraso praktikak gurasotasun biologikoko guraso praktikak baino malguagoak direlako pertzepzioa dago, hau da, rol trukeak garatzeko aukera gehiago ditu eta muga lausoagoak, bikotekideetako inork ez duelako haurdunaldirik izan, haurra hazten hasi baino lehen.

LAN PROPOSAMENA:

La vergüenza (Lotsaizuna) filmak (2009)
(<http://www.youtube.com/watch?v=0FiyY7Ovg>)
adopzioak dituen aurpegi anitzetako bat eskaintzen du.

Eragileak eta kolektiboak

Eragileak eta kolektiboak



PIINA

Jaiotzako eta Adopzioko Baimen Berdin
eta Besterezinen aldeko Plataforma
www.igualeseintransferibles.org

AHIGE

Asociación de Hombres por la Igualdad de Género
<http://www.ahige.org/>

AFADENA

Nafarroako Adopzio Familien Elkartea
www.afadena.es

ANAPASE

Nafarroako Ama eta Aita Bananduen Elkartea
anapase.blogspot.com.es

COMPAPAYMAMA

Aita eta Ama Bananduen Estatuko Konfederazioa
www.compapaymama.org

LA TERRAZA JAGOLETZA PARTEKATUAREN ALDEKO ELKARTEA

www.asociacionlaterraza.org

FAMILIA GURASO BANANDUEN ELKARTEA

www.apfs.es

BEREN BILOBETATIK ALDENDUTAKO AITON-AMONEN ELKARTEA

www.abuelosseparadosdesusnietos.org

Profesionalak

ESPAINIAKO FAMILIA ABOKATUEN ELKARTEA

<http://www.aeafa.es>

GIZARTE LANEAN DIPLOMADUNEN ETA GIZARTE LAGUNTZAILEEN NAFARROAKO ELKARGO OFIZIALA

<http://www.trabajosocialnavarra.org/>

NAFARROAKO PSIKOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA

<http://www.colpsinavarra.org/index.php>

NAFARROAKO SOZIOLOGO ETA POLITOLOGOEN ELKARGOA

<http://www.colsocpona.org/index.html>

Familiei Laguntzeko Gizarte Zerbitzuak

INAFI-NAFARROAKO FAMILIARAKO ETA BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Asuntos+Sociales+Familia+Juventud+y+Deporte/Organigrama/Estructura+Organica/INAI/

FAMILIA BITARTEKARITZA NAFARROAN

www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/2580/Mediacion-familiar

FAMILIA BITARTEKARITZA NAFARROAN

www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/2578/Punto-de-encuentro-familiar

Justizia administrazioa

Iruñeko 1. instantziako 8 zenbakiko epaitegia

(2. zenbakiko familia-epaitegia)
San Roke kalea, 4-beheko solairua
31011 Iruñea
Tel. 848 424 370 · Faxa 848 424 368
pinspam8@navarra.es

Iruñeko 1. instantziako 3 zenbakiko epaitegia

(1. zenbakiko familia-epaitegia)
San Roke kalea, 4-beheko solairua
31011 Iruñea
Tel. 848 424 025 · Faxa 848 424 294
pinspam3@navarra.es

Hezkuntza

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA-NAFARROA

www.educacion.navarra.es

NAFARROAKO CAP IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

<http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado>

HERRIKOA-NAFARROAKO IKASLEEN GURASOEN ELKARTEEN FEDERAZIOA

<http://www.herrikoa.net>

SORTZEN-IKASBATUAZ


<http://www.sortzen-ikasbatuaz.org>

ESPAINIAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA

<http://www.educacion.gob.es>

Zabalpena

Zabalpena



Jardunaldiak, biltzarrak eta topaketak

ANKULEGIKO XV. JARDUNALDIA: **Ahaidetasunari buruzko auzi garaikideak.** **Ikuspegi eta arazo berriak familia loturen azterketa antropologikoan**

Antolatzaileak: Euskal Antropologia Elkarte (Ankulegi) eta Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila (EHU).

Comunicación presentada:

Parentalidades en contextos cambiantes: circulación de menores, corresponsabilidad parental y custodia compartida.

<http://www.ankulegi.org/xv-jornada-de-antropologia-ankulegi/>

Donostian, 2012ko martxoaren 16an.

SOZIOLOGIARI ETA POLITIKA ZIENTZIEI BURUZKO IX. EUSKAL BILTZARRA **Gizarte Zientzia berri bat denbora berri baterako**

Antolatzailea: Soziologiari eta Politika Zientziari buruzko Euskal Elkarte.

Comunicación presentada:

Corresponsabilidad parental y mujeres sin maternidad: nuevas parentalidades.

Bilbon, 2012ko uztailaren 16-18an.

GENERO IKASKETEI BURUZKO VI. BILTZAR **IBEROAMERIKARRA: Alteritatea eta irudikapenak. Desberdintasunen eraikuntza eta barne hartze politikoa**

Antolatzailea: San Juango Unibertsitate Nazionaleko Filosofia, Giza Zientzia eta Arteen Fakultatea.

Comunicación presentada:

Mujeres sin maternidad y coparentalidad: emergencia de nuevas figuras parentales.

Argentinan, 2012ko irailaren 20-22an.

UNIBERTSITATEARTEKO TOPAKETA **FLACSO-EKUADORREN**

Antolatzailea: Gizarte Zientzien Fakultate Latinoamerikarra.

Comunicación presentada:

Parentalidades en contextos cambiantes. Corresponsabilidad parental planificada.

<http://www.flacso.org.ec/portal/eventos/conversatoriobrparentalidades-en-contextos-cambiantes-corresponsabilidad-parental-planificada.751>

Quiton, 2012ko urrian.

UNIBERTSITATEARTEKO TOPAKETA **Gurasotasuna, generoa eta osasuna**

Antolatzailea: GRAFO/GETP. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gizarte eta Kultura Antropologiako Saila.

Comunicación presentada:

Corresponsabilidad parental planificada y derecho a la paternidad.

Bartzelonan, 2012ko abenduaren 14-15ean.

3rd EUROPEAN CONFERENCE ON POLITICS AND GENDER (ECPG).

Organizado: Universitat Pompeu Fabra.

Comunicación presentada:

Emerging Parenthood: Joint Legal Custody and Work-life Balance Policies in Spain.

<http://www.ecpg-barcelona.com/>
Barcelona, 21-23 de marzo de 2013.

3rd ENSACT JOINT EUROPEAN CONFERENCE.

Organizado: European Network for Social Action.

Comunicación presentada:

Joint Legal Custody and Shared residence post-divorce. New parenting plans in Spain.

<http://www.ensactistanbul.org/>
Estambul, Turquía, 17-19 de abril de 2013.

VI CONGRÉS CATALÀ/INTERNACIONAL DE SOCIOLOGIA.

Organizado: Associació Catalana de Sociologia.

Comunicación presentada:

New Parenting and Shared Residence Post-Divorce. Joint Legal Custody and Life-Work Balance in Spain.

http://acs-congres.espais.iec.cat/?page_id=12
Perpiñán, Francia, 25-27 de abril de 2013.

Sareko ikerketa

Paloma Fernández Rasines: Gizarte Antropologian dokorea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), 1998 Estatu espainiarreko eta kanpoko unibertsitate-esparruan irakasten eta ikertzen aritu da: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Gizarte Zientzien Fakultate Latinoamerikarra, FLACSO-Quito, Ekuador; eta Duke University, AEB Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Saileko kontratupeko irakasle dokorea da. Sorraztearen eta ahaidetasunaren gizarte-antropologian egin du bere ikerkuntza jarduera. Genero-ikasketek eta migrazio prozesuek garrantzi handia izan dute bere irakaskuntza eta ikerkuntza jardueran, bai eta sexu gutxiengoen inguruan agertzen diren nortasunak ere. Gaur egun gurasotasun berrien esparruko baterako nazioarteko jarduera honetan parte hartzen du, eta 2013an guraso erantzukidetasunari buruzko unibertsitatearteko proiektu batean lankidetzan hasiko da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoarekin.

Gioconda Herrera: Soziologian dokorea Estatu Batuetako Columbia Unibertsitatean. FLACSO-Ekuadorko irakaslea eta ikertzailea da 1997tik. Bere ikerketa-lerro nagusia da globalizazioak eragindako gizarte-desberdintasunen azterketa, bereziki nazioarteko migrazioen analisiaren bidez. Bere azken argitalpenak generoaren, migrazioaren eta globalizazioko zainketaren gizarte-antolaketaren arteko harremanari buruzkoak dira, bai eta nazioz haraindiko familien ulermenari buruzkoak ere. Gaur egun, krisi globalak Espainiako eta Estatu Batuetako ekuadortarren migrazio-estrategietan eta jatorrizko komunitateetan izan duen eragina aztertzea du xede.

José Ignacio Pichardo Galán: Gizarte Antropologian dokorea Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (UAM). Bertan eskolak eman ditu *Generoko Diziplina-arteko Ikasketen Master Ofizialean eta unibertsitate bereko Emakumeari buruzko Azterketen Unibertsitate Institutuko* kidea da (IUEM). Irakasle Laguntzaile Dokorea da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean (UCM). Bere ikerketa-lerro nagusiak ahaidetasun, familia, aniztasun, sexualitate, genero eta kulturartekotasun gaiekin lotuta daude. Horrez gainera, ikerketa-egonaldiak egin ditu Bartzelonako Unibertsitatean, San Francisco State Universityn eta Parisko Laboratoire de Sciences Sociales-en. Bere argitalpen aipagarrienak sexu-aniztasunarekin, familia-eredu berriekin eta homoparentalitatearekin lotuta daude.

Mónica Tarducci: Filosofia eta Letretan Fakultateko gizarte-antropologiako irakaslea eta ikertzailea da Buenos Airesko Unibertsitatean (UBA) eta unibertsitate bereko *Genero Ikasketen Diziplina-arteko Institutuko* kidea da (IIEG). 2007az geroztik *"Boterea eta gizarte generoaren ikuspegitik"* Maisutzaren zuzendaria da Rosarioko Unibertsitate Nazionalean (UNR). Maisutza hori aitzindaria da Latinoamerikan. *Familia Ikasketen Maisutza* ere zuzentzen du San Martin Unibertsitate Nazionalean (UNSAM). Bere ikerketa-lerroak ahaidetasunaren antropologiaren eta kritika feministaren barruan sartzen dira. Bere azken zientzia-ekarpenek XXI. mendeko amatasun berriak eta adopzio prozesuak Argentinan dituzte aztergai.

Patricia Ramos: Dokoregaia Liègeko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Institutuan *Etnizitateareari eta Migrazioei buruzko Azterketen Zentroan* (CEDEM). FLACSO-Ekuadorko Soziologia Programako ikertzailea. Honako hauek dira bere intereseko gaiak: nazioz haraindiko familiak, generoa eta migrazioak. Bere maisutza tesia 2010ean argitaratu zen izenburu honekin: *"Eskandaluaren eta errutinaren artean: hedabideak eta familia ekuadortar migrazioan"*. Tesiak familia emigratzaileei buruzko diskurtsoak aztertzen ditu nazioarteko migrazioaren testuinguruan. Egun Liègeko Unibertsitatean-Belgikan, ari da lanean Ekuador hegoaldeko migrazio testuinguruetako emakumeen nortasun subjektiboari buruzko bere doktoretza-tesirako proiektuan.

Mercedes Bogino Larrambeberre: Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) *Gizarte Antropologiako Ikerketa Taldeko* dokoregaia (GIAS). Generoko Diziplina-arteko Ikasketen Masterra Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (UAM). Soziologiako Ikasketen Aurreratuen Diploma NUPen. Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoarekin (UNAM) irakaskuntza trukerako *Virrey Palafox* beka lortu zuen eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren *Unibertsitateko Irakasleen Prestakuntzako* (FPU) doktoretza-aurreko beka bat. Ikerketa-egonaldiak egin ditu Parisko *École des Hautes Études en Sciences Sociales* (EHESS) eta Buenos Airesko Unibertsitateko (UBA) *Genero Ikasketei buruzko Diziplina-arteko Institutuan* (IIEG). Genero desberdintasunak, bizi-ibilbideak eta gurasotasunak dira bere ikerketa-gai nagusiak.

REFERENCIA DEL DOCUMENTO:

FERNÁNDEZ-RASINES, Paloma; BOGINO LARRAMBEBERE, Mercedes (2012).
Gurasotasun berriak testuinguru aldakorretan.
[Pamplona]: [Universidad Pública de Navarra; Gobierno de Navarra].
[Consulta 10 de mayo de 2013]. Disponible en <http://coparentingb4.com/>

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

**NAFARROAKO
UNIBERTSITATE PUBLIKOA**
Gizarte Laneko saila
Arrosadiko campusa
31006 Iruñea (Spain)

PROIEKTU
HAU DIRUZ
LAGUNDU
DUTE:

